

Akta 02/2023

**KOHESIO
BATZORDEAK
OTSAILAREN 16AN
BILERAREN AKTA.**

**SOZIALEKO-
2023KO
EGINDAKO**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA
POR LA COMISIÓN INFORMATIVA
DE COHESIÓN SOCIAL EL DÍA 16 DE
FEBRERO DE 2023.**

BILDUTAKOAK

ASISTENTES:

BATZORDEBURUA:

PRESIDENTE:

D^a CARMEN DIAZ PÉREZ andrea

BATZORDEKIDEAK:

VOCALES:

(Jnak./Andk.)

(Sras./Sres.)

KELTSE EIGUREN ALBERDI (EAJ/PNV)
IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA (EAJ/PNV)
ARANTZA RICA ÁLVAREZ (EAJ/PNV)
AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ/PNV)
JANIRE OCIO CELADA (EAJ/PNV)
GONZALO ZORRILLA-LEQUERICA PAÑEDA (PP)
ALICIA GONZÁLEZ DEL VALLE FRANCOS (PP)
MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA (EHBILDU)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EHBILDU)
PAULA AMIEVA CLEMENTE (ELKARREKIN PODEMOS)

IDAZKARIA

LA SECRETARIA

D^a VIRGINIA PENERBOSA BILBAO andrea

Santa Klara Jauregiko (Foruak 6) Batzar Aretoan, 2023ko otsailaren 16an, Gizarte Kohesioko Batzorde Informatiboa bildu da, 11:48tan, Carmen Díaz Pérez andrea Batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En la Sala de Comisiones del Palacio Santa Clara (Fueros 6), a 16 de febrero de 2023, se reúne a las 11:48h la Comisión Informativa de Cohesión Social bajo la Presidencia de D^a Carmen Díaz Pérez, con asistencia de los corporativos expresados.

Akta 02/2023

Batzordeburuak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez, bilkura hastea erabaki du.

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión.

Gai-zerrendan jasotako gaiak aztertu aurretik, Mikel Bildosola jaunak adierazi du bere ustez gai-zerrendari buruzko dokumentazio gehiago dagoela, deialdiarekin batera aurkezten dena baino.

Con anterioridad a tratar los temas recogidos en el orden del día, D. Mikel Bildosola manifiesta que quiere que conste en acta que entiende que hay más documentación relativa al orden del día que la que acompaña a la convocatoria.

Carmen Díaz andreak eskatu dio zehaztu ditzala erantsi beharreko agiriak eta eman diezazkiola horri buruzko azalpenak.

D^a Carmen Díaz le solicita que concrete los puntos cree que documentación a anexar y le da explicaciones al respecto.

Eztabaida txiki bat sortzen da.

Se genera un pequeño debate.

Ondoren, deialdiko Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

Posteriormente, se pasan a tratar los puntos incluidos en el Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

1.- 2023KO URTARRILAREN 19AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.

1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR DE FECHA 19 DE ENERO DE 2023.

Aho batez onartu da aurreko bilkurako akta, 2023ko urtarrilaren 19koa.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 19 de enero de 2022.

PARTE-HARTZAILEA/INTERVINIENTE

D^a Carmen Díaz Pérez andrea

2. ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA

2. INFORMACION GENERAL DEL AREA

2.1.- EKINTZA KOMUNITARIOKO UNITATEA.

2.1.- UNIDAD DE ACCIÓN COMUNITARIA.

Akta 02/2023

2.1.1.- Interkulturaltasuna.

- Harrera Plana.
Otsailaren 20an aurkeztuko da plana, eta, beraz, laster jasoko da deialdia.
- Bizilagunak. Beste herrialde batzuetan Inauterien ospakizunekin lotutako kale-ekintza bat aurreikusita dago otsailaren 26rako.
- Zurrumurruen aurkako tailerra erakundeentzat. Otsailaren 1ean eta 2an egin da Gaztelekuan. Tailer horri buruzko informazioa eman da, eta honako hauek ere aipatu dira: etxean lan egiten duten emakumeen eskubideei buruzko informazio- eta sentsibilizazio-materiala prestatzea; Zurrumurruen aurkako gazte taldea inauterietarako sentsibilizatzeko kanpaina; eta strategiaren logo berriaren aurkezpena datorren martxoaren 18an.
- Migrazioei harrera egiteko eta arreta emateko bulegoa. Otsailaren 21ean tailer bat egingo da etxean lan egiten duten emakumeentzat

2.1.1.- Interculturalidad.

- Plan de acogida.
El día 20 de febrero se presentará el plan, por lo que en breve se recibirá la convocatoria.
- Bizilagunak. Está prevista una acción de calle relacionada con la celebración de los Carnavales en otros países para el día 26 de febrero.
- Taller anti-rumores para entidades. Se ha desarrollado los días 1 y 2 de febrero en el Gazteleku. Se informa sobre este taller y también se hace referencia a la elaboración de material informativo y de sensibilización sobre los derechos de las mujeres que trabajan en el ámbito del hogar; la campaña de sensibilización del grupo joven Antirumores para Carnavales; y la presentación del nuevo logo de la estrategia el próximo 18 de marzo.
- Oficina de acogida y atención a las migraciones. El 21 de febrero se realizará un taller dirigido a mujeres que trabajan en el ámbito del hogar.

3

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea

2.1.2.- Berdintasun zerbitzua.

- Emakumeen Etxea.

2.1.2.- Servicio de Igualdad.

- Casa de las Mujeres.

Akta 02/2023

Hilaren 20an hasiko den obra esleitu da, 10 asteko iraupenarekin.

Se ha adjudicado la obra que comenzará el día 20, con una duración de 10 semanas.

Bi bilera egin dira: urtarrilaren 17an, proiektuaren egoera azaldu zen, eta datozen asteetan landu beharreko gaiak eta etxearen izena azaldu ziren. Eta otsailaren 15eko bileran, espazioan eta oinarrizko elementuen definizioan jarri zen arreta.

Se han mantenido dos reuniones: el 17 de enero, en la que se expuso la situación del proyecto y se expusieron los temas a tratar en las próximas semanas y el nombre de la casa. Y la reunión de 15 de febrero, en la que se puso el foco en el espacio y definición de los elementos básicos.

- Berdintasun Kontseilua. Bilera bat egin zen otsailaren 9an, eta hainbat gairi buruz hitz egin zen. Horien inguruan azalpenak ematen dira.
- Consejo de Igualdad. Se celebró una reunión el 9 de febrero en la que se trataron diversos temas de los que se da cuenta.
- Bozeramaileen Batzordea. Otsailaren 3an aho batez onartu zen emakume batek jasandako sexu-erasoa gaitzesteko adierazpena. Abian jarri diren ekimenak azaldu dira.
- Junta de Portavoces. El 3 de febrero se aprobó por unanimidad una declaración de condena y rechazo por la agresión sexual sufrida por una mujer. Se explican las diferentes iniciativas que se han puesto en marcha.

4

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea

2.1.3.- Adikzioak Prebenitzeko Zerbitzua.

- Familia Eskolako ikastaroak. Urtarrila amaieran argitaratu zen "*Seme-alabak*" aldizkaria. Edizio honen edukia labur azaldu da.

2.1.3.- Servicio de Prevención de adicciones.

- Cursos Escuela de familias. A finales de enero se publicó la revista "*Seme-alabak*". Se explica brevemente cuál es el contenido de esta edición.

Akta 02/2023

- 2021-2022 ikasturteko memoria.
Bertaratuei memoria bidali da. Itzultzen ari da web orrian jartzeko. Laburpen txiki bat egiten da.
- Memoria curso 2021-2022.
Se ha enviado la memoria a los asistentes. Se está traduciendo para colgarla en la página web. Se hace un pequeño resumen.

2.1.4.- Garapenerako Lankidetzaz Zerbitzua.

- Saharar herriarekiko elkartasun karabana kanpaina.
Otsailaren amaierara arte luzatu da elikagaiak biltzeko epea.
- EKI tailerra.
Otsailaren 1ean, GGKEei zuzendutako inpaktuak neurtzeko tailer bat egin da Elkartegian. Tailerraren laburpen labur bat egin da.
- "Emadazu minutu bat..." nazioarteko lehiaketa.
Urtarrilaren 31n itxi zen lanak aurkezteko epea. Epaimahaia aste honetan bildu da eta sari banaketa martxoaren 10ean egingo da.

2.1.4.- Servicio de Cooperación al desarrollo.

- Campaña caravana solidaria con el pueblo saharai.
Se ha ampliado el plazo para la recogida de alimentos hasta finales de febrero.
- Taller EKI.
Se ha celebrado el 1 de febrero en el Elkartegi un taller de medición de impactos dirigido a las ONGDs. Se realiza un breve resumen del taller.
- Concurso internacional "Dame un minuto de...".
El 31 de enero se cerró el plazo para presentar los trabajos. El jurado se ha reunido esta semana y la entrega de premios se realizará el 10 de marzo.

5

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea

2.1.5.- Gazteria Zerbitzua.

- Wanted programa.
Joan den urtarrilean amaitu zen Wanted 2022 programa. Hauek dira hautatutako proiektuak eta zenbatekoak: Flysch, 10.000 €ko dirulaguntzarekin; Galduak,

2.1.5.- Servicio de Juventud.

- Programa Wanted.
El pasado mes de enero finalizó el programa Wanted 2022. Los proyectos e importes seleccionados son: Flysch, con una subvención de 10.000€;

Akta 02/2023

6.996 €rekin; Kalarte, 5.945 €rekin; eta Motion Urban Dance - MUD, 5.436 €rekin.

Extraviados, con 6.996€; Kalarte, con 5.945€; y Motion Urban Dance - MUD, con 5.436€.

- Gazteentzako orientazio soziolaboraleko eta juridikoko doako zerbitzu berria. Otsailean jarri da martxan, eta "Prest" izena du. 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, gazte horien egunerokotasunarekin zerikusia duten kontsulta txikietarako.
- Euskape-Euskararen Ihes Gela, Escape room ibiltaria, euskararen erabilera ikusarazteko eta sustatzeko. 18an Erromoko Gaztelekuan eta 19an Algortako Gaztelekuan.
- Nuevo servicio gratuito de orientación socio laboral y jurídico para jóvenes. Se ha puesto en marcha en el mes de febrero y se llama "Prest". Está dirigido a jóvenes entre 18 y 30 años para pequeñas consultas relacionadas con el día a día de estas personas jóvenes.
- Euskape-Euskararen Ihes Gela, Escape room itinerante para visibilizar y promocionar el uso del euskera. El día 18 en el Gazteleku de Romo y el 19 en el Gazteleku de Algorta.

6

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea
D. Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda jauna

2.1.6.- Zahartze Aktibo Zerbitzua.

- 60+ proiektuko jarduera berriak. Hilean behin dantzaldiak antolatuko dira, 18: 00etatik 20: 00etara, RKEko Areto Nagusian.

Kandelen eta xaboiien tailer bat egingo da, eta Ingurumen Gelaren bidez antolatu da.

Osakidetzarekin batera, eta Areetako anbulatorioaren bidez,

2.1.6.- Servicio de Envejecimiento activo.

- Nuevas actividades proyecto 60+. Se organizarán bailables un sábado al mes, de 18:00h a 20:00h en el Areto Nagusia de la RKE.

Se va a realizar un taller de velas y jabones que se ha organizado a través del Aula Medioambiental.

Junto con Osakidetza y a través del ambulatorio de Areeta van a

erorikoen tailerrak egiten hasiko dira.

- Silver Fim Festival. Lehenengo edizioa, adinekoei zuzendua, baina publiko guztientzat. Otsailaren 15ean izan zen aurkezpena Bilbon

Akta 02/2023
comenzar a realizarse talleres de caídas.

- Silver Fim Festival. La primera edición, dirigida para las personas mayores pero dirigido a todos los públicos. El día 15 de febrero fue la presentación en Bilbao.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea
D^a Arantza Rica Álvarez andrea
D^a Paula Amieva Clemente andrea

2.2.- GIZARTE ZERBITZUEN UNITATEA.

- Egoitza-zentroan sartzeko zuzeneko laguntza ematea. Laguntza horien oinarriak onartu dira. Berritasun gisa, irudimenezko pobreziaren kasuetan laguntza ekonomikoarekin jarduteko aukera sartu da. Kasu horretan, laguntzarekin batera Fiskaltzaren txostena aurkeztuko da.
- Aldizkakoak ez diren udal-laguntzak. AEULen araudia onartu du. Aldaketa gisa, etxebizitzetako desinfekzioak eta prestazioen zenbatekoen igoera sartu dira.

2.2.- UNIDAD DE SERVICIOS SOCIALES.

- Concesión de ayuda directa para el ingreso en centro residencial. Se han aprobado las bases de estas ayudas. Como novedad se ha incluido la posibilidad de poder actuar con ayuda económica en los casos de pobreza imaginaria. En este caso, la ayuda irá acompañada de informe de la Fiscalía.
- AMNPS. Se ha aprobado la normativa de las AMNPs. Como cambio se han incluido las desinfecciones de viviendas y la subida de las cuantías de las prestaciones.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Carmen Díaz Pérez andrea
D. Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda jauna

Akta 02/2023

3.1.- PPREN GALDERA URGULL KALEKO COWORKING ESPAZIO BERRIAREN ORDUTEGIARI BURUZ ASTE SANTUAN. 5.924 ZENBAKIKO SARRERA-ERREGISTROA DUEN IDAZKIA.

3.1.- PREGUNTA DEL PP SOBRE EL HORARIO DEL NUEVO ESPACIO DE COWORKING DE LA CALLE URGULL EN SEMANA SANTA. ESCRITO CON REGISTRO DE ENTRADA N° 5.924.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Alicia González del Valle Francos andrea
D^a Carmen Díaz Pérez andrea

3.2.- EHBILDUREN GALDERA GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUAREN KONTRATUARI BURUZ. 7.218 ZENBAKIKO SARRERA-ERREGISTROA DUEN IDAZKIA

3.2.- PREGUNTA DE EHBILDU SOBRE EL CONTRATO DEL SERVICIO DE INFORMACIÓN JUVENIL. ESCRITO CON REGISTRO DE ENTRADA N° 7.218.

8

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D. Mikel Bildosola Agirregomezkorta jauna.
D^a Carmen Días Pérez andrea.

3.3.- ELKARREKIN PODEMOS-EN GALDERA HURRENGOARI BURUZ:

- a) DOAKOTASUNA UDAL HAUR-ESKOLAN.
- b) NAGUSIEN ETXEAREN HUSTEA.

3.3.- PREGUNTA DE ELKARREKIN PODEMOS EN RELACIÓN CON LO SIGUIENTE:

- a) GRATUIDAD ESCUELA INFANTIL MUNICIPAL.
- b) DESALOJO NAGUSIEN ETXEA.

7.285 ZENBAKIDUN ERREGISTRO SARRERA DUEN IDATZIA.

ESCRITO CON REGISTRO DE ENTRADA N° 7.285.

PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES

D^a Paula Amieva Clemente andrea
D^a Carmen Días Pérez andrea

Akta 02/2023

4.- AHOZKO GALDE-ESKEAK.

1.- Alicia González del Valle andreak adierazi du beste bi galdera aurkeztu zituztela, erregistro bidez, Batzorde honetan sar zitzaten, eta ez direla gai-zerrendan jasotzen.

Batzordeko idazkari Virginia Penerbosa andreak eta Carmen Díaz andreak erantzun diote.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat jo du egun horretako 12:35ak direnean.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo aztarna elektroknoa

SHA512

d23ae921d40e2159191d3fae9f757eaba2a1a8b6d348daf69d6b292902abd154a27b0b27d34bd4a13a53c4162f59c5fd33b7513c3b6c0dff32df203618047957

Nik Idazkariak eta Batzordeburuak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS VERBALES.

1.- D^a Alicia González del Valle manifiesta que presentaron dos preguntas más, por registro, para que fueran incluidas en esta Comisión y que no aparecen recogidas en el orden del día.

Le responden la secretaria de la comisión, D^a Virginia Penerbosa y D^a Carmen Díaz.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 12:35 horas de este día.

De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audiovisual realizada mediante un sistema de video-akta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación:

Como Secretaria y firmando el Presidente en unión mía, doy fe.

El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del Ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:

<https://getxo.seneca.tv:443/watch?id=MGRhMWU00TYtZGQ3NS00MWVklWEwMTAtYzUxODc1MWEwMzM2>